

ELHUYAR

Deskribapena: Taula periodikoaren imajina ageri da lehenengo eta Elhuyar anaien argazkia ondoren.

Kike (off ahotsa): Taula periodikoan hirurogeita hamalagarren lekuan dagoen Wolfram-a lehendabizikoz Bergaran isolatu zutela ere badakigu, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean hain justu. Baina patentatuko al zuten? Auskalo! Elhuyar anaiei zor diegu aurkikuntza hori.

Deskribapena: Kike Elhuyar Fundazioaren kanpoaldean ageri da.

Kike: “Eta Elhuyar Fundazioak bere egin zuen haien abizena. Fundazioaren helburua hain zuzen ere euskara zientzian, teknologian eta gizartean txertatu eta sendotzea baita.”

Deskribapena: Teknopolis telebista-saioaren imajinak ageri dira eta jarraian Norteko Ferrokarrila irratsaioaren estudioa.

Kike (off ahotsa): Horren adibide argiak dira Euskal Telebistako Teknopolis saioa eta Euskadi Irratiko, Norteko Ferrokarrila.

Irrati esataria: “Ongi etorri Norteko Ferrokarrilea...”

Deskribapena: Kike Elhuyar Fundazioan Eider Carton Elhuyar aldizkariaren zuzendariarekin ageri da elkarrizketan.

Kike: “Eider eta Elhuyar ze helbururekin sortu zen?”

Eider: “Bueno Elhuyar kezka batetik sortu zan, euskeraz, edo zientzia euskeraz, egin zitekeela frogatzeko edo kezka horretatik. Hirurogeita hamarrekoko hamarkadan sortu zen eta garai hortan ba injenieritza ikasle batzuek konturatu zian, jabetu zian, zailtasunak zituztela euskaraz zientziaz aritzeko, adibidez, ekuazioak irakurri ahal izateko, ze garai hartan ez zegoen modu adostu bat ekuazio bat euskeraz irakurtzeko. Aldizkaria sortu zuten, aldizkari txiki bat...”

Kike: “Hala ere, ez zarete horretara mugatu eta bestelako lan-ildoak ere jorratu dituzue?”

Eider: “Bai, harrez gero, Elhuyar bueno dexente garatu da eta bi ildo nagusitan lan egin dugu betidanik, zientziaren komunikazioan alde batetik, eta hizkuntzan eta teknologiaren garapenean bestetik. Saiatzen gara ba zientzia eta teknologia gaiak gizarteratzen eskura dauzkagun formato guztien bidez.”

Kike: “Eta ze formato dira hoiek?”

Eider: “Ba bueno guk aldizkaria argitaratzen dugu, baina aldizkariak gain, irrati-programa bat daukagu, telebista-programa, Teknopolis, eta komunikabide tradizionalak, internet ere bai noski.”

Kike: “Eta ikus genitzake ale batzuk?”

Eider: “Bai jakina, goazen!”

Deskribapena: Kike eta Eider aldizkari eta liburuz beterik dagoen apal batzuetara hurbiltzen dira eta aldizkari bat hartzen dute.

Kike: “Hara!”

Eider: “Bai, hauxe, gure aldizkaria!”

Kike: “Kontxo! Ze argazki ederra, ezta?”

Eider: “Bai, ezta? Bai, saiatzen gera, asko saiatzen gera, azkenean aldizkaria begietatik sartzen da.”

Kike: “Eta zer nolako artikuluak eta dituzue barruan?”

Eider: “Ba danetarik, albisteetatik hasi, elkarrizketak, erreportajeak, istorioen atal bat ere badaukagu eta gaiak ere bai, zientziaren arlo ahalik eta gehienak estaltzen saiatzen gea.”

Kike: “Eta herritarrek ba al dute zientziarekiko interesik?”

Eider: “Guk egiten ditugu pertzeptzio azterketak ba Euskal Herriko biztanleriaren artean, bai umeetan eta bai helduetan, eta esaten dute baietz, interesatzen zaiela eta geroz eta gehiago, eta bereziki haur eta gazteen artean, eta bueno, adibidez, guk Irria aldizkarian badaukagu pertsonaia bat, Mari Kalanbre, zientzialaria da bera, bai”

Kike: “Hauxe bera!”

Eider: “Hauxe bera eta gure helburua da ba Mari Kalanbre euskaraz kontsumitzen duten ume horiek izan daitezela zientzia euskaraz kontsumituko duten helduak.”

Kike: “Ea horrela den!”

Eider: “Ea ba!”